

## EKBren III Nazio-Batzarre irekia

**EKB-K** 1983ko martxoan egin zuen bere aurkezpen formalak Berengarak UNEDen. Justu bederatzita urte bete direnean egingo du bere III Batzarre nazionala.

Aurrena 1984ean egin zuen Durangon: haren ondorio gisa argitaratu zuen *Euskararen Plangintzarako Oinarriak* izeneko liburua. Jakin aldizkariaren zenbaki monografiko gisa argitaratua (34, 1985). Bertan euskalgintzako sailen egoera eta dinamika banan banan daude aztertuta eta euskararen berreskurapen osoaren plangintzarako abiaburuak eta helburuak zehaztuta.

Bigarrena 1988an ospatu zuen bi ekinalditan: aurrena Donostian eta bigarrena Iruñean; bertan eztabaidatu eta onartu zen dokumentu mardul bat, *EKBren Hizkuntz Politika* izeneko. Euskararen egoera orokorra aztertzeaz gain, EKBk horren berreskurapenari bete beharreko lekua, eginkizuna eta ihardunbidea markatzen ziren bertan.

Beste lau urte betetzean egingo du, beraz, EKBk III Batzarre nazionala. «Ahaleginak bilduz, etorkizuna lantzen» du goiburutzat. Oraingoan atzerako nahiz aurrerako begirada luzatu nahi dugu. *Bai Euskarari* mugimendu herritar bero, baterako eta esperantzaz beteriko hura erreferentziatzat hartuz, 2001. urteari begira berritu nahi dugu esperantza hura, ez hori urte magikotzat hartuz, eta bai hirugarren milurtea ireki nahi diogulako Euskal Herri euskaldun bizia. Euskal kulturaren birbizkudearen eta euskararen berreskurapen osoaren prospektuban jartzeta da III Batzarrea.

Prospektiba luzea edukitzeak, ordea, ez digu epe motzeko eginkizunak markatzea eta erantzukizunak hartzea eragotzi behar; gutxi alderantziz: luzaroko esperantza gaurko eta biharko ekintza bihurtu behar da. Horregatik

Batzarrean eztabaidatuko den txostenak atzerako begirada kritikoa ez du alde batera uzten; baina bereziki eta luze orain bertako euskalgintzaren eta euskal kulturagintzaren egoera sakontzen du eta etorkizunari begira euskararen normalkuntzarako ardatzak eta ihardunbiderako lehenetsunak zehazten. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendu herritarrek bere heldutasunera iritsi dela agertu

### EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN ALDEKO MUGIMENDU HERRITARAK BERE HELDUTASUNERA IRITSI DELA AGERTU BEHAR DU 2.001. URTERA BEGIRA.

behar du 2001 urtera begira: azterbide teoriakoetan eta jokabide praktikokoetan.

Euskararen berreskurapen osoa lortzeko baldintza sozio-linguistikok berez ditugu zailak; eta helburu horren aurkako hainbat indar politiko eta sozial suspertzen ari dira eta oldarka ari zaizkigu gure artean. Aurrera ala atzera jotzeko kinka larrian gaude. Horregatik

eta une honetan, aipaturiko heldutasunaren adierazgarriak nagusiena euskaldunon arteko batasuna da, geure arteko trinkotasuna (konpaktazioa) emango diguna eta guztion ahaleginak bateratzera (koordinazioa) eramango gaituen. Horrela bakarrik edukiko du Euskararen berreskurapenetako ekintzak fruiturik eta esperantzak zentzurik. Horra Batzarrearen goiburaren esanahia.

Euskaldunon *konpaktazioa* ipini beharra dago euskalgintzan dihardutenen *koordinazioaren* oinarrian eta euskararen berreskurapen osoarako *plangintzako* orokorraren euskarran.

EKBren Batzarre Nazionala bere barne-organoa baino gehiago 'kanpo-organoa' edo luzapen-organoa dela esan daiteke. Horregatik bertan iraunkorki koordinatuta dauden erakunde, elkarte eta talde guztietako lagun guztiztat ezezik, euskalgintzan eta euskal kulturagintzan diharduten erakunde, elkarte, talde eta lagun guztiei dago irekia. Horregatik hainbat hilabetetan sustatu du EKBk eztabaida sozial irekia, horretarako lehen txostena zabalduz; eta jasotako eritzi eta ekarpen guztietan landu du Batzarreko dokumentua, ehundaka erakunde eta lagunaren artean banatu dena.

Horixe eztabaidatzeko eta onartzeko izango da, hain zuzen, III Batzarrea, martxoaren 28an, Donostiako Zorroagan, egingo dena. Parte hartzeko gogoia duenak eta zehaztasuna gehiago nahi lukeneak EKBren bulegoetara dei dezake (Donostian 466676; Bilbon 4100527).

**PAULO AGIRREBALTZATEGI**  
EKB-REN LEHENAKARIA

## BERRIAKZIRI



**EDUARD XEVARDNAZDE**  
Georgiako Estatu Kontseiluko lehendakaria EL MUNDO

«Nire izendapena ez da demokratikoa izan, baina bai Kontseilu Militarren jarraipena baino demokratikoagoa»



**ENRIQUE MUJIK A HERZOG**  
PSOEko diputatua Madrileko Kongresuan ARGIA

«Independentzia bezalako amets betezinak bazter utzita, helburu posibleetan jarri behar ditugu ahaleginak»



**INAKI CABASES**  
Nafarroako Euzko bozgarriak EGIN

«Bakea eta Tolerrantzarako Mahaia zaharkituta dago»



**JOHN MAJOR**  
Britaniako lehen ministroa BLANCO Y NEGRO

«Sozialistak gaur egun bankariz jantzitako otsoak dira»

## Espainiako ideologi inperialista etnozida

**STHROMASEk** dioenez, ez da kit zer irizbide erabiliak munduko 180 Estadutan 1800 bat nazio etnikoak bildurik leudeke. Badirudi, bestalde, munduan hiru bat mila hizkuntz daukela. Estadua ta Nazioaren arteko erlazioa aztertzeko hiru eredu berezi dituzakegu. Lehenengoan, Nazio bakar batek Estadu bat sortzen du berarentzat bakarrik; hau da Estadu Nazionala (Lituanianaren kasua). Bigarrenean, nazio askok, bakoitzak bere subiranotasuna gordeaz, Estadu bat sortzen dute berhaien serbitzurako ta ez alderantziz; hau da Estadu Konfederala (oraingo CEI). Hirugarrenean, Estadu batek nazio asko (bat baino gehiago) mende hartzen ditu. Subiranotasuna Estaduek gordetzen du ta ez die nazio horiei autodeterminazioa errekonozitzen; hau da Estadu Inperiala. Azken hauek inperialistak izatez gain etnozidak ere izan ohi dira.

Euskalerrria bi Estadu inperialista ta etnozidek mende hartua daukate. Bestalde, Sozio-logiak erakutsita, yakin badakigun menderatzaile menderatuekiko erlazioak mozorrotu beharrean aurkitzen dela. Otsua ardi larraz jatzeko, ideologiaz baliatuko dira. Ondorioz, inperialistek zera esango digute: batetik, Euskalerrria zapalketarik ez dagoela eta, bestetik, hemengo arazoa nazionalista ta

ez-nazionalisten artean kokatzen dela. Beraz, arazorik nagusiena ez dagoela Euskalerrria ta Inperioen artean (Paris Madrilekoak), baizik euskaldunon artean. Gainera, Paris Madrilekoak *gure* Estaduek, gure onerako ta gure serbitzurako direla esango digute. Mozorreketa bikaina! Utikan, beraz, Estadu horiek inperialista, zapaltzaile ta etnozidak direnik!

Erantzuna ez da zaila. Subiranotasun autodeterminazioen eskubideak dira kaka. Zeinen eskutan dauden ikusi behar: Estadua ren ala Herriarenetan. Euskalerrriak ez du Estadurik, ezta Estadua sortzeko eskubiderik ere ez zaio errekonozitzen. Esklabuei gizakiak zirenik ere ukatu egiten zitzairen, eskubiderik gabe hobeto uztearen. Berdin gaur, euskaldunok eskubiderik gabe uztearen, Herri bat osatzen dugunik ukatu egiten digute. Euskaldun bezala ez dugu eskubiderik. Dazukagun eskubide beharunik, espainiar eta prantsesak lez emanak zaizkigu, bainan ez euskaldunak ezala. Guk ezin dizkiogu gure buruari geuren eskubide beharunik eman. Beste herriek eta Estaduek inposatutakoak jasozazten dizkigute. Euskaldunok ez gara burujabeak eta subiranoak Ta hori dena armen meatxupean. Inperialismo pean, etnizidiorako gai, esklabu ta defentsarako eskubiderik gabe. Hau da Herri egoera hau! Alare, demokrazian omen

gaude Espainiako inperialista etnoziden mezuaren araber.

Euskaldunok inperialisten mozorreketak alidenu ta jarrera pertsonala hartu beharrean aurkitzen gara: ala gure Herria defendatuz abertzaleak izan ala traidore inperialistak izan. Hor kaka! Abertzale ez direnak inperialistak dira ta erregionalistek ere inperio etnozidaren alde jokatzten dute. *Ez dago bien tartekorik*. Abertzale versus inperialista.

Denetan okerrena ezeren eskubiderik gabe uzten gaituztela izango da, eskubideak herri errekonozimenduz eta Estadua ren bitartez bideratzen baitdira. Herri izateko daukagun irrika nazionalismo txarra omen da ta oztopatu egiten digute: alare euren nazioa inposatzen digute. Estadu izatea ere gauza atzeratua omen da ta ez digute guk gurea eratzten uzten; alare euren estadia inposatzen digute. Baidago gure lurrean gure serbitzurako legoken ejerzito erdaldu bat ere; bainan honek ez gaitu inperialismo etnozidatik defendatzen. Nola arria bildu gure burua inperialismo etnozidatik defendatuko gaituen indarra, indar abertzale zibila?

**MIKEL URKOLA**  
EUSKARIKAKO KIDEA

## ZAKILIXUT

© Olaragak

